

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

# Datorren urte politikoa

**K**atalunian datozen egun, aste eta hilabeteak erabakigarriak izango dira, arre edo so egiteko momentua iritsi da, eta badirudi aurrera egiteko determinazio osoa dutela instituzio katalanek, alderdi nagusiek, eta, bereziki, herriak, jendarteak. Prozesua geldiarazteko determinazio berdintsua dauka Espainiako Gobernuak, eta, ondorioz, bien arteko talka ziurtatuta dago. Futbol finaletan bezala, 90. minutua iristear dago, akats larri bat egiteko beldurrez dabilta jokalaria, erlojuari begira jokatzeko. Luzapenaren zain dardela ere badirudi batzuetan, baina ez gaitezen tronpa: edozein unetan etor daiteke espainolen eraso bortitza, prozesua zapuzteko helburua duen kolpea. Lasaitasun eta determinazio handia erakusten ari dira prozesu katalanaren gidari nagusiak, eta hori da une honetan behar dutena.

Europak iparrorratza apurtuta jarraitzen du, noraezean, identitate krisi izugarriekin, proiektu argirik gabe. Brexitaren inguruko negoziazioek Europan zein Erresuma Batuan bertan ondorio nabarmenak izango dituzte. Eskozian eta Irlandako iparraldean askapen prozesuak indar ditzakete, Ingalaterran Jeremy Corbyn politikari ezker-tiarraren profila eta duen babesa egunez egun indartzen doaz, eta, duela gutxi arte ez bezala, gaur egun ez da zaila Corbyn lehen ministro bilaka daitekeela pentsatzea. Faroe uharteek konstituzio berria berresteko erreferenduma prestatzen jarraitzen dute, drama eta talka handirik gabe, demokrazian botoaren bidez erabakiak hartzea gauza normala dela beste behin frogatuz. Belgikan flandriar independentistak dira Gobernua gidatzen jarraitzen dutenak, Flandriaren independentzia bidean aurrerapausoak nola eman erabakitzen duten bitartean, jada praktikan gutxienez bi herri independentez osatutako estatu federalean. Eta ultraeskuindar populismoa bere presentzia egonkortu eta normalizatzen ari den bitartean, Europako ezkerria ez da oraindik gai izan eskualde mailako alternatiba erreal bat mahaiaren gainean jartzeko. 2019ko ekainean hauteskunde europarrak egingo dira, eta, falta diren bi urte eskasotan, zatiketa eta atomizaziorako duen joera baztertuta, alternatiba erreal bat eraikitzeke pausu sendoak eman beharko lituzke ezkeriak.

Europar ez ezik, Latinoamerikan ere une garrantzitsuak datoz. Kasu honetan ere prozesu gutxi batzuk baino ez ditut aipatuko. Kolonbia, Venezuela eta Kuban datozen aste

eta hilabeteetan gertatzen denak eragin handia izango du eskualde osoaren baitan. Kolonbiako bake prozesuarentzat hilabete erabakigarriak datoz. 2018ko hauteskundearen aurretik, Habanako Akordioan adosturikoa inplementatu beharra dago, bai behintzat prozesuan ahalik eta pauso gehien eman eta gatazkaren konponbidea eta bake justu eta iraunkorra lortzea nahi bada. FARCEk alderdi bilakatze-ko konferentzia egingo du datozen asteetan, eta bertako ki-deek politika egiteko aukera eta segurtasun baldintza guztiak behar dituzte, erailak izateko beldurrik gabe politikan jardun ahal izateko. Preso guztiak askatu beharra ere bada. Finean, adosturikoa bete eta agertoki berria ahalik eta gehien sendotu behar da, prozesua atzeraezin bilakatuz. ELNren eta Kolonbiako Gobernuaren arteko prozesuarentzat ere datozen hilabeteak garrantzi handikoak izango dira, prozesua aurrera doan edo ez ikusteko aukera izango baitugu. Venezuelen kanpo injerentzia basatiak ez du oraindik bere helburu nagusia betetzea lortu, besteak beste, Maduroren Gobernuak Venezuelako herriaren babes han-

Ultraeskuindar populismoa bere presentzia egonkortu eta normalizatzen ari den bitartean, Europako ezkerria ez da oraindik gai izan eskualde mailako alternatiba erreal bat mahaiaren gainean jartzeko

dia izaten jarraitzen duelako. Edozein kasutan argi dago bertan gertatzen denak eskualde osoan ondorio handiak izango dituela, onerako edo txarrerako. Kubak ere aurrera jarraitzen du, zarata handirik gabe, bere barne trantsizioan aurrerapausoak ematen. Otsailean Raul Castrok Gobernua utziko du, eta, ondorioz, belaunaldi berriak, iraultza zuzenean bizi ez zutenak, izango dira herria aurrerantzean gidatuko dutenak. Era berean, Kubak eskualde osoan eta bereziki ezkerren baitan duen eragin moral eta ideologikoa izaten jarraituko duen ikusteko dago. Horri guztiari oso loturik, Kubak bere kanpo harremanak eta eskualdean eta munduan duen eragina birkokatu beharko ditu.

Edozein kasutan, 2017-2018 urte politikoa interesgarria izango da oso, eta, datozen hilabeteetan ere, orain arte bezala, aipatutakoak eta beste batzuk aurreikusten eta aztertzen saiatuko gara zutabe honetan idazten dugunok. •

## MIRZA DINNAYI

### YEZIDIEN AHOTSA

Yezidien defendatzaile sutsua dugu eta Estatu Islamikoaren genozidioak 4.000 urte dituen gutxiengo kurduaren geroa kolokan jarri duela ohartarazi du.

Marta Rullan | EFE



## «Nazioarteak babestu ezean, yezidiak 20 urtean desagertuko dira milaka urteko historia eta gero»

**K**risto aurretik 2.000 urtez atzera egiterik bage-nu Kurdistango lurretan aurkitu-ko genituzkeen yezidiek ez dute beste 20 urte iraungo baldin eta «munduak babesten ez baditu», Mirza Dinnayi adituak ohartarazi duenez. Izan ere, historia aurreko erlijio zoroastriko eta sinkretikoa praktikatzen duen gutxiengo kurduaren defendatzaile sutsua beldur da yezidiek beste masakre bat ez ote duten pairatuko edozein unetan.

«4.000 urteko gure historia luzean jada 73 genozidio pairatu ditugu eta berriro gertatu da» deitoratu du Dinnayik. «Ez Irakeko Gobernuak ez gainontzeko aldeek ez dituzte gure eskaerak kontuan hartzen eta nazioartearen babesik gabe gure etorkizuna iluna da», azaldu du Irak Aire Zubia gobernuz kanpoko erakundearen sortzaileak. Irakeko Kurdistango Gobernuarentzat aholkularitza lana egiten duen aditua yezidien abokatu gisa ere aritzen da.

Argi geratuenez, Mosul hiria askatzeko Estatu Islamikoaren aurka borrokan aritu diren indarrek ez dute inolaz ere yezidien oraina eta etorkizuna kontuan hartu. Izan ere, hiru urte igaro dira dagoeneko Estatu Islamikoak yezidien aurkako sarraskia abiatu zuenetik Sinjar eskualdean, eta oraindik ere «3.400 emakume eta haurrek esklabo izaten jarraitzen dute jihadistien esku. Inork ez daki non dauden». «Inortxo ere ez da arduratu yezidien patuaz. Mingarria da oso Mosuleko setioa amaitu eta soilik 40 bat yezidi askatu izana», salatu du Dinnayik Efe agentzia espainolari emandako elkarrizketan.

#### **Sinjar gotorleku historikoa**

2014ko abuztuaren 3an, jihadistek 5.000 gizonetako inguru erail eta 7.000 emakume eta haur bahitu zituzten Sinjar yezidien gotorleku historikoan. Estatu Islamikoak azken mendeotan yezidien babesleku izandako Sinjar guztiz suntsitu zuen. 200.000 lagunek ihes egin behar izan zuten, eta milaka per-



Emakume yezidi bat bere haurra zaintzen, Estatu Islamikoaren atzaparretatik ihes egin ostean. AHMAD AL-RUBAYE | AFP

tsona egarriak eta goseak jota hil ziren hainbat astez jihadistien setioa pairatu ostean –kopurua ez dago batere argi–. Sinjar mendian babestu ziren yezidiak erasoetatik, baina ez zuten jatekorik eta edatekorik eta 50 graduko tenperaturei aurre egin ezinik hildako haurren gorpuen irudiek mundu guztiko ikusleak hunkitu zituen. Hala ere, «inork ez du ezer egin guri laguntzeko», salatu du ekintzaileak.

Genozidio hark, horrela izendatu du Nazio Batuen Erakundeak berak, Iraken bizi ziren yezidiak, 400.000 inguru, ihes egitera behartu zituen. Egun, nola edo hala “bizi” dira Kurdistango, Turkiako eta Greziako errefuxiatu eremuetan.

#### **Esklaboen merkatua**

Egia da Estatu Islamikoak Iraken eta Sirian sortu zuen kalifa herria gero eta ahulago dagoela mundu osotik heldutako indar militarren aurka jasandako porroten eraginez. Aldiz, yezidien egoerak ez du hobera egin. «Jihadistek martxan jarritako esklaboen merkatuak bere horretan jarraitzen du, gure herriaren sufrimenduak bezalaxe», gogor salatu du Dinnayik. «Setiopean zeudenean, jihadistiek bahitutakoak Mosuletik atera eta Raqara eraman zituzten, kalifa herriaren Siriako hiriburura, eta bertan jarraitzen dute ehunka emakume eta hurrek».

Sortu zenetik, Irak Aire Zubia erakundeak 1.100 emakume eta haur yazidi Alemaniara bidaltzea lortu du, bertan tratamendu mediku eta psikologikoa jaso dezaten. Baina Dinnayi kexu da instituzio gutxi batzuek baino ez dietelako lagundu, tartean Baden-Württemberg Alemaniako estatu federalak. «Nazioartek ez du gauza handirik egin, azken hiru urteetan behin eta berriz deialdiak egin ditugun arren», gaineratu du negar malgotan Dinnayik. Emakume eta neskek pairatzen dituzten gehiegikeria izugarriak gogoratu eta jihadistek mutilak atentatuak egitera bultzatzen dituztela ere salatu du. Horretarako, nortzuk diren eta nondik datozen ahaztera behartzen dituzte.

*«Inortxo ere ez da arduratu yezidion patuaz. Mingarria da oso Mosuleko setioa amaitu eta 40 yezidi soilik askatu izana»*

*«Estatu Islamikoko jihadistek martxan jarri zuten esklaboen merkatuak bere horretan jarraitzen du, gure herriaren sufrimenduak bezalaxe. Errefuxiatu eremuetan dauden yezidiek ez dute etxera itzultzzerik nahi. Beldur dira»*

## «EGUNERO BORTXATZEN GINTUZTEN»

Duela hiru urte, Yamila gazteak 14 urte baino ez zituen. Sinjar eskualdean bahitu zuten jihadistek, eta, lau hilabetez, ihes egitea lortu zuen arte, egunero bortxatu zuten. Egun infernu berbera sufritu duten beste emakume batzuei laguntzen die, bizitzen jarraitzera animatuz. «Baina, aurretik, gertatuko nolabait onartu edo barneratu egin behar da. Nik lortu dut beste emakume bortxatuekin hitz egiten, bata besteari bizitzeak merezi duela esanez», azaldu du Yamilak. «Ihes egin nuenean, nire buruaz beste egiteko gogoia izaten nuen sarri. Baina bizitzak aurrera egin behar du beti, eta, hori egingo banu, ezingo nuke ezer egin ez nire alde ez yezidien alde ere», nabarmendu du gazteak Kurdistango Gobernuaren Yezidien Auzietarako bulegoan, Dohuk hirian. Bertan bere antzeko egoerak bizi izan dituzten neskek ezagutu ditu.

Yamilaren kontakizuna 2014ko abuztuaren 3an hasten da. Lo zela, jihadistiek bere etxeari eraso egin eta familia osoa eraman zuten. Gizonak baztertu ondoren, neska «gazte eta lirainak» euren amengandik baztertu zituzten. «Nire amak negar egin zuen, oihera egin zien jihadistiei bere alabak ez zituela beraien eskuetan utziko esanez. Baina jihadistiek fedegabeak ginela esaten zuten, eta musulman bihurtu behar genuela paradisuan sartzeko. Nire amari ostikoak eman zizkioten konortea galdu zuen arte, eta, gero, Mosulera eraman gintuzten, Galagysy izeneko egoitza batera. Bertan hogeitaz egun eman genituen». Ostean, Estatu Islamikoaren «emirrak» heldu ziren, eta, gogoratu duenez, bati neska bat gustatzen zitzaionean pala batekin jo eta eraman egiten zuten.

Yamilaren, bere ahizparen eta beste 73 neskaren patua «Sinjarko emirren» harema osatzea izan zen. Jihadisten buruzagiak bere agindupean zeuden milizianoen artean banatu zituen gehienak, lau beretzat aukeratu ondoren,

tartean bi ahizpok. 50-60 urte bitarteko «emirrak» Al Buseifera eraman zituen, Mosul hegaldara. Bertan lau hilabete egin zituzten. Egunero bortxatzen zituen. Yamilak ez du sekula ahaztuko nola lotu zizkion eskuak eta besoak sofa batera, bortxatu eta ostean bere bizkartzainen esku uzteko. Honakoa esaten zion: «Hau normala da, denok anaia-arrebak gara!».

«Emirren etxean» lau neskek jihadistentzat otorduak egiten zituzten, etxea eta odolez zikindutako arropak garbitzeaz gain. Azazkalak ere moztzen zizkieten jihadistiei. «Beraien neskameak ginen», laburbildu du Yamilak.

Egun baten, 2014ko azaroan, jihadistek neskek Siriako beste kide batzuei saltzea erabaki zuten, eurekin «aspertuta» zeudela-eta. Jihadista bat baino ez zen geratu etxean eta besteak tratua ixtera joan ziren. Egoera baliatuz, telefonoa lapurtu zioten, senitartekoei deitu zieten eta etxearen atzealdetik ihes egin zuten. Bidean jihadistak talde batek ikusi zituen, baina orduan senitartekoak iritsi eta liskarraren erdian ihes egitea lortu zuten, lehenik Arbilera, Hego Kurdistango hiriburura, eta, azkenik, Dohukera. Azken herri horretan jaso zuen Yamilak laguntza psikologikoa. Ostean, Nagam gobernuz kanpoko erakundearen lanean hasi zen. Bortxatutako emakumeei bisita egiten zien, «niri gauza berdina egin zidatela kontatu» eta bizitzen jarraitzera animatzen zituen.

Yezidien Auzietarako bulegoaren datuen arabera, 1.102 neska eta emakumek lortu dute ihes egitea, baina beste 1.597k yihadisten esku jarraitzen dute, tartean Yamilaren beste ahizpa batek (bere aitak desagertuta jarraitzen du). Dohukeko errefuxiatuen eremuan milaka yezidi bizi dira egun, eta Yamila giza laguntza banatzen ere aritzen da bertan. Bere ama zaintzea ahaztu gabe, honek ere bost hilabete geroago yihadisten eskuetatik ihes egitea lortu baitzuen.



Nadia Murad en Lamiya Aji Bashar gazte yezidiei Sajarov saria eman zien Europar Batasunak. GARA


Itzuliko al dira yezidiak Sinjarra, Niniveko lautadara, Mesopotamiaren eta Asiriaren Inperioaren sorreraren lekuko izan zen lurraldera? Aditu honek argi ditu mendeetan zehar beste gutxiengoekin bakean bizi izan den herriak bere jaioterrira bueltatu ahal izateko bete beharreko gutxiengoen baldintzak: «nazioartearen babes, berreraikuntza prozesu integrala eta bakea garatu eta sendotzea».

«Yezidien %80k ez dute inolaz ere itzuli nahi, errefuxiatu eremuetan bizi baldintzak negargarriak badira ere. Ez dute konfiantzarik Irakeko Kurdistango Gobernuarengan», ohartarazi du Dinnayik. Ez da harrizkoa: eskualdeko segurtasunaren ardura zuten pexmergek ihes egin zuten Estatu Islamikoak eraso egin zuenean eta yezidiak jihadisten esku utzi zituzten. Iparraldeko kurdien gerrillak, PKK-k, egin zuten aurre jihadistiei, hildako eta bahitutako kopurua gutxitzea lortuz.

Dinnayik 2007an sortu zuen Irak Aire Zubia. Helburua atentatu izugarri baten ondoren umezurtz geratutako haurrei laguntza eskaintzea zen: 400 yezidi hil ziren Irakeko historian izandako atentaturik odoltsuenean. Orduko Al-Qaeda, Estatu Islamikoaren aitzindaria, hartu zuen bere gain atentatua. Lehergailuz gainezka zeuden hiru kamioi ez-tandarazi zituen. «100 bat neska-mutili lagundu genien atentatuaren ostean, baina, Estatu Islamikoaren genozidioaren ondoren, yezidiei laguntzera bideratu genuen gure lana». Egun, hamalau pertsona egiten dute lan gobernuz kanpoko erakundeetan, eta Alemania, Israel eta Italiako hainbat unibertsitatekin elkarlanean ari dira.

### Omenaldia

Joan den astean bertan, Irakeko eta munduko hainbat ordezkari bildu ziren Bagdaden yezidien aurkako genozidioaren hirugarren urteurrena gogoratzeko. Fuad Masum Irakeko presidentea eta politikari kurduak zuzendu zuen ekitaldia, eta bertan izan zen Nadia Murad gazte yezidia, 2016an Europar Batasunaren Sa-



Estatu Islamikoaren erasoaren aurrean, yezidiek ihes egin behar izan zuten Sinjar mendiko magaleko euren gotorleku historikoa atzean utzita.  
AHMAD AL-RUBAYE | AFP

jarov saria jaso zuena. Estatu Islamikoko kideek bahitu eta sexu-esklabo bezala erabili zuten ihes egin zuen arte. Nazio Batuen Erakundeak ohorezko enbaxadore izendatu zuen, eta gertatutakoa ikertzeko batzorde bat eratu zuen. Batzordeak dei egin berri dio egunotan nazioarteari gertatutakoa genozidio bat izan zela onartu eta erantzuleak epaileen aurrera eramantitzan. Bagdadeko ekitaldia antolatu zuen Yazda elkartzuneko erakundeak lotsagarritzat jo du oraindik Estatu Islamikoaren arduradun bakar bat bera ere Hagako Auzitegiaren akusatuen aulkian eseri ez izana.

Irakeko Kurdistango Gobernuak ekitaldian emandako datuen arabera, 3.325 lagunek Esta-

tu Islamikoaren eskuetan jarraitzen dute. 4.038 yezidi erail zituzten jihadistek eta gehienak 43 hilobi komunetan lurperatu zituzten, Yezidien Auzietarako bulegoko arduradunak, Idan Sheij Kalok, azaldu zuenez. Muradek, bere aldetik, dei egin zion Irakeko Gobernuari herrialdeko komunitate eta gutxiengo guztiak, yezidiak barne, bere barnean onar ditzan.

### Eguzkiari otoi

Yezidiena munduko erlijioen artean zaharrenetarikoa dugu, eta antzinako Persiako zoroastrismoan du oinarria. Euren sinismenen artean Melek Taus aingerua adoratzeko dago. Erlijio monoteistentzat, kristautasuna eta islama tartean, aingeru hori

deabrua da. Bada, jazarpen handia pairatu dute aitzaki horrekin yezidiek historikoki. «Integrismo islamikoak jomugan jarri gaitu», salatzen du behin eta berriro Dinnayik. «Edozein momentutan beste genozidio bat paira dezakegu», gaineratzen du kezkatuta.

Kaloren esanetan, Estatu Islamikoak yezidiek Eguzkiari otoi egiteko erabiltzen zituzten 68 tenplu suntsitu ditu. Ez dirudi, ordea, yezidien patuak inori axola dionik, ez nazioartean, ezta Irakeko Gobernuaren baitan ere. Horrela bada, 4.000 urteko historia oparoa hogeituzen, zitzu bizian, desager daiteke. Eta hori ez litzateke soilik Estatu Islamikoaren edota jihadistien erantzukizuna, guztiona baizik.



Elizabeth RUIZ | AFP

## IKUSMIRA

# EKAITZAREN MEHATXUARI ZUTIK EUTSI DION EMAKUMEA

Baliteke emakumea itsasertzera hurbildu izana kopet-  
lun sumatu duelako zerua. Agian bertaratu da zerua  
kotsolatzeko asmoz, edo, bestela, berarekin batera  
negar egitera, negar egitea ez baita koldarren gauza.  
Emakumea itsasoaren pareraino hurbildu da bere ba-  
rrenak lasaitzeko. Zutik dirau emakumeak, nahiago

duelako begietara begiratu datorrenari: alerta laranja Mexikon urakan arriskuagatik. Barkuaren  
uberak ez du marratzuko olatuek ondoren ezabatuko dutena ez besterik, eta berdin ezabatuko  
dira emakumearen oin arrastoak hondarretan ere. Baina ekaitza ez da hasi oraindik, eta artean  
badago tarterik itsasoa hazten eta zerua jaisten ikusteko. Dotore jantzi da zeru ilunari begi ar-  
giekin begiratzeko, etxerako itzulera mela-mela egiteko arriskua hartuta. Ekaitzak emakumea  
harrapatuko du edo emakumeak ekaitza? Talaia horretatik, lasaigarria suertatzen da eguneroko  
arrisku sotila den hori: «Kontuz! Ontziratze eta lehorreratze gunea». Maddi TXINTXURRETA